

2019ko JARDUEREI BURUZKO TXOSTENA

AURKIBIDEA

ANTOLAKETA EGITURA

1. KANPO HARREMANAK

- 1.1 Izapidetzeak administrazio publikoarekin.
- 1.2 Enpresen alten eta baje kudeaketari buruzko plana elkartean.
- 1.3 «Erosketa guztiz bakarrak» proiektua.
- 1.4 Euskadiko Merkataritza foroa.
- 1.5 Nagusi Txartela programa.
- 1.6 Euskararen Laguna merkataritza sarea.
- 1.7 Bilerak eta/edo harremanak alderdi politikoekin, udal hauteskundeak direla eta.

2. KOMUNIKAZIOA

- 2.1 Zirkularrak.
- 2.2 Izapidetzeak komunikabideekin.
- 2.3 Newsletterrak.
- 2.4 Webgunea.
- 2.5 Sare sozialak.

3. PRESTAKUNTZA

4. ZERBITZUAK

- 4.1 Akordioak hirugarrenekin.
- 4.2 Aholkularitza.
- 4.3 Laguntzak eta diru-laguntzak.
- 4.4 Lan-poltsa.
- 4.5 Kontsumoa sustatzea eta sinergiak sortzea bazkideen artean.
- 4.6 GetxoEskaintzak + Bezeroei zuzendutako eskaintzak.
- 4.7 Bazkide diren enpresetan wifi sarea instalatzea eta aprobetxatzea.
- 4.8 Lizitazioak.
- 4.9 Bezeroentzako gidaliburua hainbat hizkuntzatan.
- 4.10 Enpresa bazkideentzako newsletter eredia.
- 4.11 Bazkideak promozionatzea: www.getxoenpresa.com
- 4.12 Enpresak turisten artean promozionatzea.

5. JARDUERAK

- 5.1 2020ko agenda-dietarioa.
- 5.2 Getxoko enpresen eta enpresentzako egutegiak.
- 5.3 Getxon erosketak egiteko sentsibilizazio kanpaina.
- 5.4 Getxoko 29. Erakusleihu Lehiaketa.
- 5.5 Getxoko pintxo txapelketa.
- 5.6 Enpresa Bazkideen Urteroko XIV. Topaketa.
- 5.7 Getxoko ardoaren azoka.
- 5.8 VIII. eta IX. GetxoBono.
- 5.9 34. Getxo Moda.
- 5.10 II. Getxo Shop & Music.
- 5.11 Gabonetako dinamizazio proiektua.
- 5.12 34. Getxo Modari lotutako proiektua (ostalaritza azpisektorearentzat).
- 5.13 III. Getxoko harraskatu eta irabazi.
- 5.14 Bazkideak omentzea.

A. JARDUEREI BURUZKO TXOSTENA

ANTOLAKETA EGITURA

BATZAR OROKORRA → ZUZENDARITZA BATZORDEA → BATZORDE BETEARAZLEA → KUDEAKETA TALDEA

BATZAR OROKORRA: Elkartearen borondatearen adierazpen organo nagusia, elkartearen parte diren enpresek osatua.

ZUZENDARITZA BATZORDEA: Elkartearen gobernu eta zuzendaritza organoa, hilero ohiko bilkura egiten duena.

BATZORDE BETEARAZLEA: Zuzendari batzuk osatutako organoa, Zuzendaritza Batzordeak onartutako gaiak kudeatzen dituena, eta elkartean egiten ditugun proiektuen gauzatzearen arabera biltzen dena.

KUDEAKETA TALDEA: Zuzendaritza Batzordeak onetsitako proiektuak kudeatzen eta aurrera eramaten dituzte.

Apirilaren 9an, elkartearen egoitzan, 2018ko OHIKO BILTZAR OROKORRA egin genuen; gai zerrenda honako hau izan zen:

- 2017ko Ohiko Batzar Orokorraren akta irakurtzea eta, egokia bada, onestea.
- 2018. urtean egindako jarduerak eta 2019. urterako jarduera plana.
- 2018ari dagokion informazio ekonomikoa eta 2019ko ekitaldirako aurrekontua.
- 2018ko ekitaldian bazkide tutako enpresa berrien zerrenda.
- Zuzendaritza Batzordeko karguak berritzea.
- Galde-eskeak.

Horrez gain, honako hauek editatu ziren:

- 2018ko urteko memoria formatu digitalean.
- 2018ko ekitaldiari dagokion informazio ekonomikoa duen dokumentu bat.
- Dokumentu hau, 2019 ekitaldirako jardueren plana eta aurrekontua biltzen dituena.

1. KANPO HARREMANAK

1.1. IZAPIDETZEAK ADMINISTRAZIO PUBLIKOAREKIN

2019an tokiko administrazioarekin, foru administrazioarekin eta lurralde administrazioarekin etengabeko harremana izaten jarraituko dugu bazkide tutako enpresen arazoak konpontzeko eta udalerriko enpresa sarearentzako eta bereziki gure kolektiboko bazkideentzako interesekoak eta onuragarriak diren ekintzak sustatzeko.

Urte honetako gai nagusiak hauek izan dira:

- Ostalaritzako ordutegiak luzatzea.
- Tokiko enpresetan kontsumoa bultzatzeko ekintzak.
- Aparkalekua.
- Dinamizazio ekonomikorako udal laguntzen oinarriak.
- Erreformak egiteko, kalean ekitaldiak antolatzeako, terrazak jartzeko eta abarretako jakinarazpenak eta baimenak.
- Zabor-dukiontzien kokapena.
- Iruzurrak, maulak eta lapurreta establezimenduetan.
- Saldoen merkatuak udalerrian.

1.2. ENPRESEN ALTEN ETA BAJEN KUDEAKETARI BURUZKO PLANA ELKARTEAN

Talde kudeatzaileko langile batek kanpo harremanak gauzatzen ditu eta kolektiboan integratu gabeko udalerriko enpresei kolektiboan egotearen abantailen berri ematen die. Horrez gain, elkartean egiten ditugun eta ematen ditugun zerbitzuei buruzko informazioa ematen die, elkartean integratu daitezen.

Urteko aldi horretan zehar 20 enpresa sartu dira, merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu alorretakoak.

Gainera, modu indibidualizatuan kudeatzen ditugu enpresa elkartuen baja jakinarazpenak eta taldetik irteteko arrazoen berri izaten dugu, hala, gure jarduera hobetzen saiatzeko.

1.3. "EROSKETA GUZTIZ BAKARRAK" PROIEKTUA

Aurreko urtetik 'Truly Unique Shopping. Erosketa guztiz bakarrak' izeneko proiektuan lankidetzan aritu gara eta proiektua xedatu dugu. Proiektua Bizkaiko Foru Aldundiak sustatzen du eta aldundiak eta Bilboko Turismoak gauzatzen duten hedapen eta sustapen turistikoko proiektuaren barne dago. Hala, lehen aldiz merkataritza integratu da eta turista eta bisitariei Bizkaiko eskaintza turistikoz, bertako produktuak eskaintzen dituzten saltoki berezietan eta saltoki abangoardistez disfrutatzeko gonbidapena egin zaie. Ekimen honetan Bizkaiko merkataritza eta enpresa elkarteek ere parte hartu dute, baita Bilboko Merkataritza Ganberak ere.

Fitur 2019an katalogoa aurkeztu zen, editatutako euskarri nagusia, proiektuaren helburua lortzeko. Urte honetan katalogoa hobetuko dugu, hobetu daitezkeen alderdiak identifikatuko ditugu eta 2018ko jardueren gabeziak zeintzuk izan diren ikusiko dugu, horiek osatzeko edo hala badagokio, zuzentzeko.

1.4. EUSKADIKO MERKATARITZA FOROA

Bilbo erdiguneko, Irungo, Laudioko eta Getxoko elkarteak erreferentziakoak dira gure lurraldean, eta hala, batu egin gara hiri merkataritzaren gaur egungo egoerari buruzko diagnostikoa partekatze eta elkarrekin lankidetzan aritzeko. Horren helburua beharrak eta hausnarketak administrazio publikoei helaraztea da, baita merkataritza sektoreekin lotutakoei ere, eta hala, politika publikoak egokitu ahal izango dira tokiko merkataritzari benetako laguntza eraginkorra emateko eta estrategia asoziatiboak egokiagoak izango dira.

Urte honetan zehar lankidetzaren egitura sendotuko da eta administrazio publikoarekin eta gainerako erakundeekin harreman estuagoa izateko lan egingo da. Helburuak saltoki handien online erosketekin eta merkataritza gune handien erosketa fisikoekin lehiatzea, kontsumitzaileen eta hurbileko saltokien arteko arrakala murriztea eta saltokiei erreferentziako elkarte hurbiltzea dira.

1.5. NAGUSI TXARTELA PROGRAMA

Bazkideetako enpresak promozionatzeko eta horien jarduera ekonomikoa Nagusi Txartela duten 60 urte baino gehiagokoan artean gehitzeko bazkideetako saltokiak programa horretara atxikitzeke izapidetzeak egiten ditugu.

Programara atxiki daitezke Getxoko merkataritza enpresak, ostalaritzakoak eta zerbitzuetakoak, merkataritza onura eskaintzen dutenak gutxienez 3 hilabeteko indarraldiarekin. Kolektibo horrentzako prezio eta/edo zerbitzu abantailak Bizkaiko Foru Aldundiak editatzen duen online gidan argitaratzen dira. Bizkaiko Foru Aldundia da jardueraren sustatzailea, eta atxikitako enpresek bereizgarria dute saltokia edo bulegoa kanpotik identifikatu ahal izateko, ekimenean parte hartzen dutela agerian uzteko hain zuzen ere.

1.6. EUSKARAREN LAGUNA MERKATARITZA SAREA

Getxoko Udalak sustatutako proiektuaren preskriptoreak izaten jarraituko dugu. Horren bitartez euskararen lagunak diren saltokiak, ostalaritza guneak eta zerbitzuetakoak osatutako sarea sortu da eta "Txantxangorriaren" irudiarekin identifikatzen dira saltoki horiek guztiak.

Sare horren barne egon nahi duten enpresek saltokia kalean izan behar dute, bezeroekin euskaraz hitz egiteko gaituta egon behar dira (nahiz eta bakarrik hasierako hitzak izan euskaraz) edo kartelak (promozioak, prezioak, eta abar) bi hizkuntzatan jarri beharko dituzte, eta hala, doan jasoko dituzte honako materialak, zerbitzuak eta laguntzak:

- Bezeroekin euskaraz aritzea errazteko gida metodologikoa.
- "Txantxangorri" bereizgarria saltokian jartzeko.
- "Euskararen Laguna merkataritza sarean" hedapena eta hizkuntza aholkularitza.
- Saltokian jartzeko kartelen maketazioa, inprimaketa eta oharren plastifikazioa eta itzulpenak.

1.7. BILERAK ETA/EDO HARREMANAK ALDERDI POLITIKOekin UDAL HAUTESKUNDEAK DIRELA ETA

Maiatzaren 26ko udal hauteskundeak direla eta hautagaiekin eta ordezkari politikoekin bilerak egingo ditugu, gaur egungo legegintzaldian udaleko Osoko Bilkuran dauden hauekin: PNV, PP, GUK, EH BILDU, PSE-EE eta C's.

Bilera horien helburua hautagaitzetan udalerriko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu jarduerari buruz egongo diren proposamenen berri izatea da, baita gure kolektiboaren barne dauden enprekin eguneroko harremanetan jaso ditugun behar eta proposamenak ordezkari politikoei helaraztea ere, honakoak besteak beste:

1. Hiriko saltoki eta ETE-ei laguntza erreal eta sustapena emateko neurriak (alokairuentzako laguntzak, IKTetan inbertitzeko laguntzak, autonomoen kuotak ordaintzeko, finantzazioa jasotzeko eta kontrataziorako, zergen hobarientzako, lizentziak kudeatzeko erraztasunak izateko, obretarako, eta abarrerako.)
2. Enpresa transmisioan laguntza eta sustapen eraginkorra ematea.
3. Merkataritza guneetan beste erabilera batzuekin bateragarria den egoitzazko erabilera sustatzeko estrategiak eta hiri politika eta sektore politika egokiak zehaztea (etxebizitza, jarduera ekonomikoa, egoiliarrentzako zerbitzuak, eta abar). Kasu honetan, udalerriko HAPOn alderdi hori jaso behar da halabeharrez.
4. Merkataritza seinaleketik ezartzea.
5. Udalerriko merkataritza guneetako aparkaleku arazoa konpontzeko irtenbide eraginkorrak.
6. Hiriko argiteria hobetzea eta merkataritza guneak garbitzea.
7. Merkataritza guneetan zabor edukiontzien kokapena berrikustea.
8. Udaltzaingoak sentsibilizatzea eta udaltzainek udalerriko merkataritza eta ETEak sustatzea.

9. Obrak ahalik eta azkarren egitea, eta salmenta edo kontsumo garai altuetan obrak egitea saihestea. Iraupen zehatza duten obrak egitean, obrek zergeri dagokienez enpresei sortutako ondorio negatiboak arintzeko neurriak hartzea, enpresen seinaleetika egokia ezartzea, saltokietan sartzea errazteko neurriak aplikatzea, eta abar.
10. Turismoaren eragin erreala sortzeko (itsas bidaiak eta abar) neurriak hiriko merkataritzan eta ETE-etan.
11. Aldizka kontzientziazio kanpainak egitea bizilagun guztientzat eta bereziki gazteentzat, bertako saltokietan eta ETE-etan erostearen garrantzia azpimarratuz.
12. Leialtasunik gabeko lehiakortasuna deuseztatzea eta kontrolatzea (legez kanpoko salmenta mugikorra, hoteletako ekimenak, etxeetatik egiten diren salmentak, eta abar).
13. Gehieneko erraztasun eta malgutasuna tokiko administrazioak hala eskatuta saltokiek eta ETE-ek egiten dituzten izapideetan.
14. Arlo publikoaren eta pribatuaren arteko elkarlana eraginkorra izatea, alderdi bakoitzaren eskumenak errespetatuz, batera ahalik eta modu eraginkorrean eta efizienteenean lan egiteko, Getxoko merkataritzaren eta ETE-en alde.
15. Udalaz gaindiko administrazioek beherapen aldiak berriz ere ezartzeko eta merkataritza elektronikoaren eta tradizionalaren arteko zerga eta kargen arteko oreka sortzeko laguntzak.

Alderdietako hautagaiekin bilerak egin ondoren elkarteko enpresei alderdi bakoitzak hurrengo legegintzaldirako dituen ondorioen eta neurrien berri emango diegu, betiere oinarria Getxoko enpresak hobetzea eta sustatzea izango delarik.

2. KOMUNIKAZIOA

2.1. ZIRKULARRAK

Urtariletik hainbat gairi buruzko 26 jakinarazpen eman dizkiegu elkarteko enpresei: enpresak sustatzeko jarduerak eta zerbitzuak, laguntzak eta diru-laguntzak, prestakuntza programak, araudia, udaleko lizitazioak eta beste administrazio edo entitate batzuetako lizitazioak, enpresa kudeaketa, eta abar.

Kolektiboan sartutako enpresen % 90ek zirkularrak posta elektronikoz jasotzen ditu eta gainerako % 10ak posta bidez. 2019an posta bidez jasotzen dutenek jasotzeen berri eman dute.

2.2. IZAPIDETZEAK HEDABIDEekin

Kolektiboan komunikazio agentzia dugu, eta agentzia horrek modu profesionalean elkarreak egiten dituen jardueren berri ematen du, eta hala, komunikabide idatziek eta digitalek elkartean gauzatzen ditugun proiektuei buruzko hedapen garrantzitsua egiten dute, baita ekimenetan parte hartzen duten enpresei buruzkoa ere.

Horren barnean komunikazio planak definitzen dira, prentsurrekoak antolatzen dira, oharrak eta jakinarazpenak sortzen dira eta horiek komunikabideekin izapidetzen dira eta publizitatea kontratatzen eta izapidetzen da beste tresna batzuen artean. Gainera, egindako kanpainei buruzko balorazioa egiten da eta proposamenak zehazten dira.

2.3. NEWSLETERRA

Gure kolektiboko enpresek urtean zehar egiten dugunari buruzko informazioa jasotzeko eta www.getxoempresa.com webgunearen bitartez buletin elektronikoa jasotzeko eskaria egin dutenek ere horren berri izateko, hilean behin newsletter bat bidaltzen diegu enpresa bazkideei bakoitzak aukeratutako hizkuntzan.

Buletin bakoitzean elkarteko jardueren eta zerbitzuen xehetasunen berri ematen dugu eta proiektu bakoitzean parte hartzen duten enpresak zeintzuk diren adierazten dugu, enpresen intereseko informazioa ematen dugu, berri garrantzitsuak jasotzen ditugu, legeria berritasunak, prestakuntza planak, eta abar. Newsletterren atal bakoitzak www.getxoempresa.com webguneako atalerako esteka du, eta bertan gai bakoitzari buruzko informazio gehiago aurkitu daiteke.

2.4. INTERNETEKO ATARIA

2018an zehar www.getxoempresa.com webgunean 60.000 bisita baino gehiago izan ziren eta erabiltzaileek (enpresak, bizilagunak, bisitariak eta azken finean, bezeroak) beste batzuen artean honako funtzionalitateak erabili ahal izan zituzten:

- Elkarteko jarduerari eta zerbitzuei buruzko informazio eguneratua jasotzea.
- Elkartean modu seguruan sustatzen ditugun jardueretan izena ematea eta horien ordainketa egitea.
- Epaimahaikide gisa parte hartzea zenbait jardueratan.
- Kokapenerako eta harremanetarako datuen berri ematea: bazkide bakoitzaren logotipoa eta gehienez establezimenduaren edo bulegoaren 6 irudi, webguneetarako estekak eta/edo profila sare sozialetan. Orobat, bazkideetako enpresa bakoitza udalerriko mapan kokaturik egongo da eta bezeroentzat geokokaturik, baldin eta webgunera sarbiderik badago sakelako telefonotik.
- Bazkideen atalean hainbat dokumentazio aurki daiteke, hala nola zirkularrak, intereseko informazioa, arautegia, eta abar. Era berean, iragarkien taula ere badago, informazioa trukatzeko eta bazkideetako beste enpresa batzuen xehetasunen berri izateko.

2019an bide hori erabiltzen jarraituko dugu proiektuen berri emateko eta proiektuetan parte hartzen duten saltokiak ezagutarazteko, eta orokorrean elkarrearen barneko enpresak ezagutarazteko.

2.5. SARE SOZIALAK

Facebooken [getxoempresa](https://www.facebook.com/getxoempresa) profila eta twitterren [@Getxo_Enpresa](https://twitter.com/Getxo_Enpresa) profila ditugu, eta horiekin elkarrekin egiten dituen jardueren eta ematen dituen zerbitzuen berri ematen jarraituko dugu, baita horietan parte hartzen duten establezimenduen berri ere. Horrez gain, sare sozial horietan profilak dituzten bazkideetako enpresekin harremanetan arituko gara.

3. PRESTAKUNTZA

Ondoren hilabeteen araberako prestakuntza plana aurkeztuko dugu. Hauxe da urteko 1. sei hilekorako plana:

Otsaila: Finantza-bankuen hilabetea

1. Autonomo izatetik sozietate mugatua izatera pasatzea interesatzen zait? (2h.)
2. Negozioa kudeatzeko banku eta finantza produktuak. (2h.)
3. Erretiroa planifikatzea: Gizarte Segurantzako kotizazioak. (2h.)

Martxoa: Teknologia berrien hilabetea

1. Sare sozialak saltokientzako: community management-ari buruzko sarrera. (6h.)
2. LinkedIn: presentzia profesionala. (6h.)
3. Interneten ekitea. (6h.)

Apirila: Segurtasunaren hilabetea

1. Laneko arriskuen prebentzioa. (6h.)

Maiatza eta ekaina: Marketin eta erakusleihen hilabetea

1. Salmentarako abileziak. (6h.)
2. Erakusleihoak apaintzea eta saltokiaren irudia. (6h.)
3. Negozioetarako marketin plana. (6h.)
4. Eskabideak eta stock-a kudeatzea. (6h.)

Prestakuntza saio espezifikoak ostalaritzarako eta elikagaien azpisektorerako:

1. Prestakuntza elikagaien higienerari eta segurtasunari buruz. (3h.)

4. ZERBITZUAK

4.1. AKORDIOAK HIRUGARRENEKIN

Elkarteko enpresek jarduera gauzatzeko beharrezko zerbitzuetako honako baldintza bereziak izango dituzte, enpresa hauek ematen dituztenak:

- **Internet bidezko komunikazioa**
- **Kontabilitate, lan, zerga eta merkataritza arloa.**
- **Obren zuzendaritza eta lizentzien lorpena**
- **Legezko arloa eta arlo juridikoa**
- **Laneko arriskuen prebentzioa eta osasunaren zaintza**
- **Finantza produktuak eta zerbitzuak**
- **Publizitatea eta promozioa**
- **Autoen konponketa**
- **Konponketa produktu informatiko/telefoniko eta software eta hardware eskuratzeko zerbitzua.**

Akordio bakoitzaren xehetasunak <https://www.getxoenpresa.com/eu/zerbitzuak/> webgunean jasota daude, eta urte honetan zehar indarrean dauden akordioetako baldintzak hobetzen eta negozioaren kudeaketarako interesekoak diren gainerakoak ixten saiatuko gara.

4.2. AHOLKULARITZA

Urtarriletik bazkideen 30 kontsulta inguru jaso eta kudeatu ditugu, enpresen kudeaketaren hainbat alorri dagozkienak: lan alorrekoak, lege alorrekoak, zerga alorrekoak eta abar.

4.3. LAGUNTZAK ETA DIRU-LAGUNTZAK

2019an zehar elkarteko enpresei agiri hau argitaratu arteko laguntzen eta diru-laguntzen berri eman diegu. Laguntzak hauetarako dira: toldoen, pertsianen, biniloen eta merkataritza ibilgailuen errotulazioa euskaraz jartzeko eta berrikuntza, nazioartekotzea, inbertsioa eta izapidetzea hobetzeko teknologia berriak kontratatzea eta ezartzea, horretarako interesa dutenentzako.

Informatzen eta aholkatzen jarraituko dugu eta, hala badagokio, erakundeek kudeatutako laguntzak eta diru-laguntzak izapidetzen enpresa bazkideentzat; halaber, jarraipena egingo dugu espedienteak amaitu arte.

4.4. LAN POLTSA

2019an elkarteko enpresek egindako 8 langile eskaera jaso ditugu, honako postu hauetarako langileak kontratatu behar baitzituzten: administraria, sukaldeko nagusia, dekoratzailea, ile-apaintzaileak eta saltzailea.

Zerbitzu horren barruan hainbat alderdi jorratzen dira: bazkideen premietara egokien moldatzen diren curriculumen aurretiazko hautaketa, hautagaiak aukeratzeko prozesuan laguntzea, lan arloko aholkularitza (kontratu mota egokiena, kontratazioa finantzatzeko laguntzen eta diru-laguntzen eskuragarritasuna, Gizarte Segurantzaren kotizazioak, eta abar). Gainera, hala behar duten elkarteko enpresek elkarteko aretoak erabiltzeko aukera dute hautagaiak aukeratzeko.

4.5. KONTSUMOA SUSTATZEA ETA SINERGIAK SORTZEA BAZKIDEEN ARTEAN

Ekainean zerbitzu hau egikaritzen hasiko gara, eta hala, gure elkarteko enpresak zehaztasunez ezagutzeko lan egingo dugu eta bazkide diren beste enpresek bete ahal dituzten gabezien eta beharren berri izango dugu, eta horrenbestez, kolektiboaren barneko enpresen artean negozioak eta sinergiak sortzeko aukera egongo da elkartearen zuzeneko bitartekaritzarekin.

Gainera, proiektu honi esker elkarteko lantalde kudeatzaileak zehaztasun gehiagoz izango du enpresen jardueraren eta bazkideen ezaugarrien berri, eta hala, bakoitzari ematen diogun zerbitzua pertsonalizatzeko aukera izango dugu.

4.6. GETXOESKAINTZAK + BEZEROEI ZUZENDUTAKO ESKAINTZAK

Enpresa bazkideek eskaintzak eta/edo promozioak egin diezazkiekete elkarteko enpresei 'GetxoEskaintzak' ekimenaren bidez, edo, bestela, amaierako bezeroei zuzendu diezazkiekete (oraingo bezeroak edo potentzialak), 'bezeroei zuzendutako eskaintzak' atalaren bitartez: www.getxoenpresa.com.

‘Getxo eskaintzak’ bazkideen atal pribatuan kokaturik dago. Horretara kolektiboko kideak zareten enpresak bakar-bakarrik sartu ahal izango zarete, zuen erabiltzaile eta pasahitzarekin. Bezeroentzako eskaintzak erabiltzaile guztiek ikusi ahal izango duten webgunearen “Zerbitzuak” izeneko atalean egongo dira.

Elkartea osatzen duzuen enpresetako titularrek eta langileek edo azken kontsumitzaileek promozioez eta/edo eskaintzez gozatu ahal izateko, webgunearen bidez deskargatu daitezkeen promozio kupoia aurkeztu beharko duzue eskaintza egiten duen establezimenduan edo bulegoan.

4.7. BAZKIDE DIREN ENPRESETAN WIFI SAREA INSTALATZEA ETA APROBETXATZEA

Kolektiboko 40 enpresek parte hartzen dute proiektu honetan. Bakarrik bazkideei zuzenduta dago eta bere bitartez bezeroei wifi sare segurua eta pertsonalizatua eskaintzen zaie saltoki bakoitzeko logotipoarekin eta irudiekin.

Zerbitzu honen bitartez bezeroen erosketak/kontsumo esperientzia hobetu egiten da, bezeroak fidelizatzen dira eta bezero berriak erakartzen dira, eta era berean bazkideak eta elkarrekin bezeroen datuak jasotzen ditugu (saltokian sartzen direnen kopurua, saltokian egoten diren batezbesteko denbora, konexio kopurua, konektatzen diren atzeritar kopurua eta jatorrizko herrialdea, eta abar), eta datu horiekin erabakiak hartu daitezke eta jarduketara egokiak egin daitezke.

Wifi sarea doan erabili dezakete bezeroek eta baita saltokian gutxienez 50 MB-ko Internet konexioa duten enpresa kideak ere. Urtean zehar ekimenera atxiki ahal izango dira hala nahi duten enpresak.

4.8. LIZITAZIOAK

Urtariletik euskarri grafikoak diseinatzeko eta maketatzeko eta material grafiko banatzeko lizitazioen berri eman diegu eta publizitate eta kuminikazio kudeaketan lagundu diegu horiek jaso ahal dituzten enpresentzat.

Zerbitzu horren bitartez enpresa bazkideei eska ditzaketen lizitazioen eta/edo kontratazioen eskakizunen eta baldintzen berri ematen diegu, bai udalak egiten baditu, bai beste udalerriek eta beste erakundeek egiten badituzte, besteak beste Lanbideak, Euskal Herriko Unibertsitateak edo Bilbao Exhibition Centerrek.

4.9. BEZEROENTZAKO GIDALIBURUA HAINBAT HIZKUNTZATAN

Irailetik aurrera merkataritza eta ostalaritza enpresentzat 2 gidaliburu simple eta praktiko eskuragarri jarriko ditugu gaztelaniaz eta euskaraz. Gidaliburu bakoitza jarduera sektore bakoitzarentzat espezifikoa izango da eta bertan jasoko dira bezeroei emandako arreta hobetzeko gidalerroak. Tresna hori beraz, erabilgarria izango da emandako arreta garatzeko eta hobetzeko, eta etengabeko prestakuntza euskarria izango da langile eta titularrentzat.

Gidaliburu horren bidez bezeroekin ingelesez eta frantsesez komunikatu ahal izateko jarraibideak emango dira.

4.10. ENPRESA BAZKIDEENTZAT NEWSLETTER EREDUA

Martxotik bazkideentzako enpresek interesa erakutsi dute zerbitzu berri hau erabiltzeari dagokionez, eta editatu daitekeen newsletteraren eredia eskatu digute. Horren bitartez bezeroei informazioa bidaltzen zaie doan.

Ereduan, goiko aldean enpresaren irudia dago, ondoren aurkezpena, argazkientzako eta testuentzako lekua (bertan azaltzen dira nabarmendu beharreko produktuak eta/edo zerbitzuak eta webguneko estekak), enpresaren profil sozialak (bezeroek informazio gehiago jaso dezakete horietan) eta orri-oina (bertan kokapenari buruzko eta harremanetan jartzeko datuak eta saltokiaren Interneteko webgunea jasotzen dira).

Elkarteak hala eskatzen duen enpresa alta egoeran jarriko du eta enpresak Mailchimp plataforman tresna hori erabili ahal izango du; bertan, enpresaren kontuan kargatuko dugu eredia. Enpresa bakoitzak zehaztuko du editatzeko aldizkakotasuna eta buletin elektronikoa harpidedunei bidaliko die. Gainera, enpresei gida sinple bat emango diegu buletina egitea eta bidaltzea errazteko, eta zerbitzua erabili nahi duten enpresentzat eskuragarri egongo gara tresna erabiltzean sortu daitezkeen zalantzak edo kontsultak egin ditzaten.

4.11. BAZKIDEAK PROMOZIONATZEKO ZERBITZUA WWW.GETXOENPRESA.COM WEBGUNEAREN BITARTEZ

Bazkideentzako enpresek beren marka, produktuak eta/edo zerbitzuak, ekimenak, promozioak eta abar erakutsi ditzakete www.getxoenpresa.com webgune nagusian edo barneko webguneetan publizitate espazio bat "banner" kontratatuz eta kostuak murriztuak izango dira. Kontuan hartu behar da 2018an webgunean 60.000 bisita baino gehiago egon direla.

4.12. BAZKIDEEN BATERAKO PROMOZIOA SARE SOZIALEN BIDEZ

'Getxon shopping egiten' lelopean urtean zehar enpresa bazkideentzako zenbait kanpaina promozional egingo ditugu. Kanpaina bakoitzak hilabete iraungo du eta kanpainetan elkartearen facebooka eta twitterra erabiliko ditugu. Lan hori sare sozialak kudeatzen aditua den eta gure elkartearen kide den enpresa batek egingo du.

Lehenengo kanpaina martxoan egin zen eta "Anfitriño onena izateko aholkuak" izena zuen, eta 16 enpresa hauek parte hartu zuten bertan: **ARRESE GOZOTEGIA, COSMOPOLITA KAFETEGIA, JUAN MARI HARATEGIA, CROISSANTERIE GETXO, EL COMERCIO KAFETEGIA-TABERNA, FANGALOKA, ETXETXU BERRIA, VILLAMONTE BELAR DENDA, LA KAZUELA, LA OKA, MEXICO TABERNA, MIMATE, GILDARETXE GOZOTEGIA, ZURIKALDAI NEGURI GOZOTEGIA, TAMARISES IZARRA JATETXEA, SARRIKOBASO HAZTEGIAK**. Kanpaina promozio bideo bat egin zen eta bertan enpresa parte-hartzaile guztiak agertzen ziren, baita saltoki bakoitzaren klip pertsonalizatuak ere bakoitzaren izenarekin, helbidearekin, telefono zenbakiarekin eta Interneteko webgunearekin.

Zerbitzu berritzaile horren bitartez enpresa bazkideak promozionatzen ditugu elkartearen sare sozialetan, eta balioa ematen diegu batera egindako hedapenari, askoz ere erakargarriagoa eta interesgarriagoa baita bezeroentzat saltoki guztiak batera ikustea enpresa bakoitzak promozioa norbere sare sozialetan egitea baino. Hala ere, kanpainetan parte hartuko duten saltokiek bakoitzaren klipa izango dute egokituz jotzen dutenean bakoitzaren baliabideen bitartez hedatzeko.

4.1. ENPRESAK TURISTEN ARTEAN SUSTATZEA

Bizkaiko 60 hoteletako harreran metakrilatozko euskarri bat dago non bezero, turista eta ostatu hartzen dutenek eskuragai dituzten sustapen-zerbitzu honetan parte hartzen duten enpresen txartelak. Txartel horien diseinua asko zaindu da, eta horrez gain, turismoari, kulturari nahiz kirolari lotutako beste enpresa batzuen txartelak ere badaude, besteak beste: Guggenheim Bilbao Museoa, Boroa Estrella Michelin, Ur Kayak, etab.

Zerbitzuan parte hartzen duten enpresa bazkideen txartelak berriz ere jarriko dira behar denean, eta horrela bermatuko da bezeroek eta turistek txartelak eskuragai izango dituztela zerbitzua kontratatu den aldi osoan zehar, urtebetez alegia. Zerbitzu honen barne daude txartela diseinatzea eta urtero 20.000 txartel inprimatzea eta 2.000 kosturik gabe, enpresek txartelak izan ditzaten egokitzat jotzen dutenean.

5. JARDUERAK

2019an jarduera hauek egitea aurreikusi dugu, albo batera utzi gabe enpresa bazkideentzako gainerako jarduera interesgarriak eta erabilgarriak izan daitezkeenak:

5.1. 2020ko AGENDA-DIETARIOA

Kolektiboa osatzen duten enpresek, erakundeek, erakunde publikoek eta elkartearen jarduera eta zerbitzuen erakunde babesleek/laguntzaileek azaro bukaeran 2020rako agenda jasoko dute, egun bakoitzeko orrialde batekin.

Dietario bakoitzak jasotzaile bakoitzaren izena izango du eta propagandarako tarte bat izango du enpresa bazkideentzako eskuragarri, baita 2020ko jaiegunen zerrenda eta enpresentzako interesgarriak diren telefono zenbakien zerrenda ere.

5.2. GETXOKO ENPRESEN ETA ENPRESENTZAKO EGUTEGIAK

Getxoko artista batek (adibidez udalerriko enpresa sarea irudi bidez islatuko duen margolari batek) 2020rako egutegi bat editatuko eta egingo du, ekimenean parte hartu nahi duten enpresek egutegiak bezeroei eman ahal izateko abenduaren hasieratik aurrera saltokietan erosketak egiten dituztenean.

Enpresa bakoitzak egutegi berezi eta orijinal horietako asko jasoko ditu eta bezeroei egutegiak banatzeko gutxieneko erosketa baldintzak ezarriko ditu.

5.3. GETXON EROSKETAK EGITEKO SENTSIBILIZAZIO KANPAINA

Maiatzean pantaila handiak izango dituen ibilgailu bat Getxoko kaleetan zehar ibiliko da eta Algortan, Areetan eta Romon jende asko ibiltzen den merkataritza gunetan kokatuko da film labur bat erakusteko. Modu ludiko eta positiboan grabaketa honen bitartez udalerrian erostearen eta kontsumitzearen abantailak erakutsiko dira, baita bertako negozioek getxotarrei ematen dizkieten abantailak eta saltokiek duten garrantziaren berri eman ere.

Kontuan hartuta formatua berritzailea dela eta kanpainaren egikaritze eta hedatze modua, espero dugu komunikabide idatzizkoetan eta digitaletan inpaktu handia lortzea eta hala, gaur egungo bezeroak fidelizatzea eta mantentzea, etorkizunekoak erakartzea eta udalerrian erosketak egitea eta kontsumitzea sustatzea. Gainera, bideoa urtean zehar erakutsiko dugu hainbat hedabideen bitartez eta enpresa bazkideek bideoa izango dute beraiek ere hedatu dezaten, eta hala, guztiok batera, getxotarrei eta bisitariei helarazi nahi diegun sentsibilizazio mezua indartuko da.

5.4. GETXOKO ERAKUSLEIHOEN 29. LEHIAKETA

Jarduera hau Getxon errotuen dagoen eta parte-hartze gehien duen jardueretako bat da. Bertan, enpresek erakusleho fisikoen kategorian (erakusleho kontzeptua zabala da, eta onartuta dago dekorazioa saltokiaren barnetik ikustea) eta/edo birtualen kategorian (webgunea eta/edo sare sozialetako profilak) izena eman ahal izango dute eta sari interesgarriak eta bezeroen aintzatespena jaso ahal izango dituzte. 28. edizioan 120 enpresek izena eman zuten modalitate bietan, eta maila bikaina erakutsi zuten.

Aurten berriz ere lehiaketan izena emateko epea azaroaren bigarren hamabostaldian hasiko da eta epaimahaikideak profesionalak izango dira, modalitate bakoitzean ibilbide eta esperientzia profesional handia dutenak aurkeztutako proposamenak ebaluatzeko. Horrez gain, epaimahai herritarra ere egongo da eta www.getxoenpresa.com webgunearen bitartez erakusleho fisiko eta birtual gogokoenak bozkatuko dituzte, eta sari interesgarriak jasotzeko aukera izango dute baita ere.

Abendu erdialdean sariak banatuko dizkiegu saritutako erakuslehoia (fisikoa zein birtuala) duten enpresei, baita beren erakusleho gogokoenak (fisikoak zein birtualak) epaimahai herritar gisa bozkatu izanagatik zozketa bidez saritutako bezeroei ere.

Aurreko edizioetan bezala, hedapen kanpaina garrantzitsu bat egingo dugu, bai lehiaketa bera zabaltzeko, bai bertan parte hartzen duten enpresen berri emateko. Horrez gain, saiatuko gara enpresentzako sariak aurreko urteko ediziokoak baino hobeak izan daitezen.

5.5. GETXOKO PINTXO LEHIAKETA

Ekainako proiektuan parte hartuko duten ostalaritza enpresek lehiaketarako pintxo bat egingo dute eta bezeroei aldez aurretik enpresa guztiek hitzartutako prezioan eskainiko dizkie pintxoak.

Gainera, epaimahai teknikoa izango dugu, errestaurazio sektoreko profesionalak osatutakoa, eta kontsumitzaileek osatutako epaimahai herrikoia ere izango dugu, <https://www.getxoenpresa.com/eu/> webgunearen bitartez pintxoak ebaluatuko dituztenak. Enpresa parte-hartzaileek eta epaimahai herrikoak askotariko sariak jaso ahal izango dituzte.

Jarduera, enpresa parte-hartzaileak eta udalerriko eta inguruko bizilagunek proposatutako pintxoak erakutsiko ditugu, eta horretarako, komunikazio eta hedapen lan handia egingo dugu eta promozio materiala sortuko dugu.

5.6. ENPRESA BAZKIDEEN URTEROKO TOPAKETA

Maiatzaren 30ean, ostegunean, 20:30ean, harremanetarako topagune eroso eta informal bat eskainiko dizuegu elkarte osatzen duzuen enpresei elkarteko ostalaritza establezimendu bazkide batean. Bertan honako ekintza hauek egingo dira negozio aukerak sortzeko eta azaldutako enpresen ordezkarien kontaktu sarea zabaltzeko:

Afaria zerbitzatuko dugu koktel formatuan, eta bertaratu bakoitzak txartel bat izango du bere enpresaren izenarekin papar hegalean jartzeko. Horrez gain, ekimenean parte hartuko duten enpresen txartelak eskuragarri egongo dira saltokientzako espazio batean, eta hala, ekimena bukatzean harremanetan jarri ahal izatea erraztuko da.

5.7. GETXOKO ARDOAREN AZOKA

Jarduera hau egitearen helburua bizilagunak jardueran parte hartzen mantentzea eta udalerrira bisitariak erakartzea da, eta horretarako, ardoarekin lotutako aisialdi aukera eskaintzen diegu. Aldi berean, jardueran parte hartu nahi duten bazkideetako ostalaritza enpresak promozionatuko ditugu.

Ekaineko asteburu batean eta zehazteko dagoen udalerrira batean enpresa ardogileak izan nahi ditugu dastatzeak eta produktu salmentak egiteko, eta bazkideetako ostalariak ere bertan egongo dira, bertaratuei pintxoak eta aperitiboak ematen. Sarrera doakoa izango da.

Erakusketa horretan enpresa parte-hartzaileen laguntza izatea espero da hainbat jardueretarako espazio bat izateko, besteak beste dastatzeak, elkarrizketak, uztartzeak, eta abar, eta komunikazio kanpaina handia egingo da bizilagunei eta inguruko bisitariari azokaren berri emateko.

5.8. VIII. ETA IX. GETXOBONO

Aurten Getxo Bonoko bi edizio egin nahi ditugu, bata maiatzean eta ekainean eta bestea irailean eta urrian.

3.000 bono eskainiko dira, 1.500 kanpaina bakoitzean, eta bonoak Kutxabaneko zerbitzu anitzeko kutxazainetan eta <https://www.getxoenpresa.com/eu/> eta www.kutxabank.com webguneetan eskuratu ahal izango dira. Bonoak proiektuan parte hartuko duten udalerriko enpresetan erabili ahal izango dira. Saltokien zerrenda elkartearen eta udalaren webgunean eskuragarri egongo da. Gainera, enpresa horiek elkarteak emandako bereizgarri bat izango dute, bezeroek erraz identifikatu ahal izateko.

Bono bakoitzak 40 euro balioko du eta 50 euroko erosketak egin ahal izango dira berarekin. Modu horretan gutxienez 50 euroko eta 50 euroren multiploko erosketen % 20 finantzatzen da.

Antzeko beste kanpaina batzuetan ez bezala, Getxo Bonon jarduera sektore guztietako enpresek parte hartu ahal izango dute eta bonoak ticket edo faktura bakoitzean metatu ahal izango dira zenbatekoak bonoen kopurua gainditzen baldin badu.

5.9. 34. GETXO MODA

Getxo moda azken hiruhileko hilabetean izango da, eta 2019 honetan gainera Getxoko Antzokian (Muxikebarri) izango da hainbat berritasun gehiagorekin, moda, osagarri, edertze eta irudi pertsonaleko udalerriko enpresek onurak izateko eta enpresa horiek beste enpresengandik ezberdintzeko. Honakoak egingo dira:

- **#Getxo Moda_Pasarelak:** 2 egunetan pasarelak egin nahi ditugu eta pasarelentzako segmentu berriak txertatu nahi ditugu. Pasarelak segmentuen araberakoak izango dira, adibidez, couture, diseinatzaile berriak, kids, emaztegaiak, lentzeria, moda jasangarria, eta abar.
- **#GetxoModa_Beauty:** Erakusketa bat egin nahi da tamaina handiko argazkiekin. Irudia oso zaindua izango da eta erakusketa osatzeko tailerrak eta jarduerak egingo dira. Bertan, saltokiek parte hartuko dute eta edertze sektoreko, bitxien, osagarrien eta estilismo sektoreetako Getxoko enpresentzako bezero posibleak erakarriko dira. Saltoki bakoitzak irudi horiek izango ditu promozio ekintzak 6 hilabeteetan zehar egin ahal izateko.
- **#GetxoModa_SocialMedia:** Getxo Modak mugikorrenzako eta zenbait sare sozial espezifikoentzako webgunea izango du eta loturak izango ditu esteken eta banerren bitartez, hala, elkartearen webgunera eta sare sozialetara joan ahal izateko.
- **#GetxoModa_Shooting:** Getxoko saltoki bakoitzak kanpainako 4 argazki, arropen/look-en 6 argazki eta saltokiko 3 argazki izango ditu, eta 6 hilabeteetan zehar erabili ahal izango dira promozio kanpainak egiteko. Argazki bat #GetxoModa_Windows-en barne egongo da, hurrengo puntuan zehaztuko dena.
- **#GetxoModa_Windows:** Jendeak, bizilagunek eta bisitariak #GetxoModa_Shooting-en sortutako irudien saltokietan ibilbidea izango dute. Irudi bakoitza binilo, display edo euskarri egoki batean jarriko da enpresa bakoitzarentzat, eta irudiok saltokietan jarriko dira jendeak ikusi ahal izateko.
- **#GetxoModa_Journal:** Egunkari bat sortuko da, kalitatezko diseinua izango du eta hainbat ale inprimatuko dira Getxon eta beste udalerrri batzuetan banatzeko.
- **#GetxoModa_Streetstyle:** Angel Robles argazkilari ospetsuak Getxoko look onenen argazkiak aterako ditu eta sarien lehiaketa bat egingo da.
- **#GetxoModa_Influencer:** Influencerrak bilatuko dira Getxoko merkataritza eta estilismo enpresak sustatzeko eta promozionatzeko. Influencerren argitalpenen eragina aprobeztatuko da bertako enpresak promozionatzeko, eta lehiaketa baten bidez Getxoko influencer berria aukeratu da.
- **#Getxo Moda_Workshop:** Dropshipping-ari (Online salmenta stock-ik izan gabe) buruzko tailer interesgarria egiten ahaleginduko gara.
- **#GetxoModa_FashionNight:** Ekimenarekin bukatzeko gala. Bertan, sariak banatuko dira eta diseinatzaile eta estilista ospetsu baten desfilea egingo da.

5.10. II. GETXO SHOP & MUSIC

Ekimen honen bidez udalerriko merkataritza kaleak dinamizatu eta animatu nahi dira bezeroak fidelizatzeko eta mantentzeko, eta horretarako, musika ikuskizunak eskainiko dira doan. Asteburu batean zehar (ostirala eta larunbata), uda hasi aurretik eta saltokiak irekita egoten diren ordutegian, udalerriko erdigunean eta periferian kokatutako hainbat enpresek estilo ezberdinetako musika ikuskizunak (blues, folk, rock eta country) erakarrirako hainbat bisitari izango dituzte, eta ekitaldiak Algortako, Areetako eta Romoko kale eta merkataritza guneeetan egingo dira.

Gainera, kanpainari atxikitako saltokietan erosketak egiten dituztenek, hau da, musika ikuskizunak egingo diren saltokietan eta/edo musika ikuskizunak sare sozialetan partekatzen edo txiokatzen dituztenek, sari interesgarriak jaso ahal izango dituzte.

Horrez gain, komunikazio kanpaina garrantzitsua egingo dugu barne hedabideetan, kanpo hedabideetan eta sare sozialetan, bertako jendea atxikitzeko eta kanpoko bisitariak erakartzeko, proiektuaren egikaritzea dela-eta.

5.11. GABONETAKO DINAMIZAZIO PROIEKTUA

Gabonetako kanpainarako Getxoko enpresa sarea dinamizatu nahi dugu, eta horretarako, gure tradizio kultural bat sustatu nahi dugu, Olentzero alegia.

Hori egiteko pertsonaia mitologikoa bere baserrian jarriko dugu ikatz zakuekin, egurrarekin eta abarrekin dekoratuta, eta baserria udalerriko merkataritza gune batean edo zenbaitetan kokatuta egongo da. Hala, bisitariak eta umeak eskutitzak utzi ahal izango dituzte; ekimenean parte hartuko duten saltokietan aurretik arrera egingo zaie guztiei.

Jarduera eta bertan parte hartzen duten enpresak hainbat euskarri grafiko eta barneko eta kanpoko komunikabideen bidez hedatuko dira, komunikazio lan handia egingo baita.

5.12. 34. GETXO MODARI LOTUTAKO PROIEKTUA (OSTALARITZA AZPISEKTOREARENTZAT)

Getxo Modaren ospea eta egikaritzea kontuan hartuz, ekintza osagarri hau egitea proposatu da, menuak eskaintzen dituzten ostalaritza enpresak promozionatzeko.

“Modako menuak” izeneko ekimenean parte hartuko duten ostalaritza establezimenduek proiekturako bereziki prestatutako menua eskainiko dute enpresa guztiek adostutako prezioan, eta eskaintzaren baldintza espezifikoak enpresa bakoitzak ezarriko ditu: bezeroek bono-menuak erabili ahal izateko azken eguna, bonoak erabili ahal izateko egunak eta ordutegiak, edaria eta kafea barne egotea edo ez egotea, eskuragarri egongo diren bono kopurua, eta abar.

Bezeroek gutxienez 2 bono-menu erosi beharko dituzte eta erreserba gutxienez 48 ordu aurretik egin beharko dute establezimenduan. Bonoak www.getxoenpresa.com webgunean edo elkartearen egoitzan eskuratu ahal izango dira.

Gainera, elkartearen sare sozialetan proiektuari buruzko argitalpenak partekatzen dituztenen eta proiektua gustuko dutenen artean menuak zozketatuko dira eta komunikazio kanpaina handia egingo da proiektuan parte hartzen duten enpresak eta beraien menuak ezagutarazteko.

5.13. GETXOKO III. HAZKATU ETA IRABAZI

Aurreikusi dugunaren arabera, proiektu hau azaroan egingo da. Aukera emango du proiektuan parte hartzen duten merkataritzako, ostalaritzako eta zerbitzuetako enpresak sustatzeko, eta, aldi berean, beren bezeroek establezimendu horietan erostean erakusten duten konfiantza eta fideltasuna saritzeko.

Jardueran parte hartuko duten enpresek bezeroei “Hazkatu eta irabazi” txartelak banatuko dizkie gutxienez 10 euroko erosketa egiten badituzte, eta bezeroek oraindik zehazteko dauden sariak jaso ahal izango dituzte. Horrez gain, hala nahi duten enpresek diru txartelak banatu ahal izango dituzte beraien saltokian “insitu” erabiltzeko.

Ekimenaren eta bertan parte hartzen duten enpresen berri emango dugu euskarri grafikoan bitartez eta proiektuaren komunikazio eta hedapen kanpaina baten bitartez. Azken hori kanpo eta barne hedabideetan egingo da.

5.14. BAZKIDEAK OMENTZEA

Bazkidetutako enpresen XIV. urteko topaketa dela-eta merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu sektoreetako 3 enpresa omenduko ditugu hurrenez hurren . Omendu egingo ditugu elkartean orain dela urte askotatik daudelako eta urtean zehar erretiratutako enpresa bazkideen titularrak ere omenduko ditugu, Getxoko Erakusleihen Lehiaketaren 29. Edizioko sariak banatzen direnean.